



COVID 19 Koronabirusa: Eustea, nor bere etxean hasita


Isolatzea agindu zutenetik bi aste igaro dira, eta oraindik ere birusari aurre egiteko denbora gehiago beharko da. / 1-16



"Batxilergokoek lanean jarraitzen dute etxetik", Magale ikastetxeko Agustin Urretabizkaia / 4




"Ikasleak martxan eta motibatuta dauzkagu", Egape ikastolako Amaia Amutxastegi / 4



Dendari txikien errealitate gordina Andoaingo Jaione Bitoriaren eskutik / 5



Arregi eta Irastorza urnietar gazteek Asiatik itzuli behar izan zuten, Koronabirusagatik / 8-9



#BertsoVID19, Zelai ahizpak, ilustrazioa... eduki osagarri ugari eskura Aiurri.eus webgunean / 11



Errepidean eta espaloian inor ez, astelehen goizean ateratako argazkian. AIURRI

Txorien kantua nagusi, hutsik geratu den paisaia geldoan

KORONABIRUSA GIZARTEAN Kaleak hutsik, errepidean ia ibilgailurik ez dabil. Alerta Egoerak autoak eta pertsonak mututu ditu, eta orain nagusi dena txorien kantua da. Aiurri.eus-eko bideoetan ikus daiteke hori



Arantzibia kaleko haur parkea, Andoainen. AIURRI

Haur parkeak itxita

Historiara pasako den iruditeria, egun hauetan ikusten ari garena. Eskolak itxita, haur parkeak itxita... eta haurrak etxean sartuta. Adituen gomendioa eta agindua horixe baita, haurrak birusaren transmisioan lagungarri omen direlako. Normaltasuna berrezarri arte ez ohiko irudiak ikusiko ditugu, ez ohiko egoeran.



Idiazabal kaletik gertuen dagoen haur parkea, Urnietan. AIURRI



AIURRI

Ibilaldi luzeak, galerazita

Larunbat goizean hasita, Trentxiki-Plazaolako eta Lizarkola kanaleko ibilbideak itxita daude, emergentzia egoerak iraun bitartean: "Auzokoei bakarrik bermatuko zaie bertatik pasatzeko baimena, betiere lege ahalbidetzen diren kasuetarako. Bertatik igarotzen diren gainerako guztiei isuna ipiniko zaie". COVID19aren aurkako segurtasun neurriak zorrotz betetzen ez dituzten andoaindarrak badirela ziurtatzen zen, ohar berean.



Aiurri.eus werbgunean eskegitako bideoan ikus daitekeenez, oso geldoa da paisaia. Ez baitabil ia inor kalean. AIURRI



Goikoplaza eta Kale Nagusiaren hasiera, hustuta. AIURRI



Urnietako San Juan plaza, ez ohiko egoeran. AIURRI

Animozko mezuak balkoian



Animozko mezuak, garrantzia handikoak komunitatearentzat. AIURRI



Arantzibia plazako balkoia. AIURRI



Etxeberrieta-Karrika aldeko balkoia. AIURRI

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

Ikastetxeen itxiera, zuzendarien ahotik

AGUSTIN URRETABIZKAIA MAGALE IKASTETXEKO ZUZENDARI PEDAGOGIKOA
KORONABIRUSA HEZKUNTZAN Ikastetxea itxita izanagatik, ikasturtea ez da eten. Teknologia berriak erabilia, ikasleekin etengabeko harremanetan daude

Mikel Arberas URNIETA

Nola eragin dizue ikastetxeen itxierak?

Ikasleek etxetik egiten dute lana eta irakasle askok ere telelanean bitartez ari dira lanean; irakasle gutxi batzuk hemen gaude ikastetxean, bakoitza gela batean eta geure artean ez daukagu ia kontakturik. Kontakua telefonoaren bitartez egiten dugu.

Irakasle onolakuntzari dagokionez, bilerak egiten jarraitzen dugu, baina "meet" plataforma erabiliz, hau da, bideo konferentziak egiten ditugu bilerak.

Klaseei dagokionez, ordutegi normalarekin burutzen ari gara. "Classroom" plataforma erabiltzen dugu. Ikasle bakoitzak ordenagailu bat du etxean. Ez dugu esango normaltasunez ari garela lanean, baina egokitzen ari gara; ikasleekin kontaktuan jartzen gara, bideokonferentziak lanak jartzen ditugu eta klasearen amaieran lan horiek jaso egiten ditugu. Arlo bakoitzean modu ezberdinean ari gara, baina kontaktuan gaude ikasle gehienak eta ikaslearen gehiengoak klaseak jarraitzen ditu. Egia da ere, beti dagoela klaseak jarraitzen ez dituen ikasle horietakoak, baina tira. Guretzako sorpresa handia izan da, oro har jarraipen handia egiten ari direlako. Lehengo ordutegia mantendu dugu.

Astebete soilik pasa da, baina pozik gaude.

Orain zalantzak ditugu azterketak nola egin; formulario bidez, ikasleek azalpenak eman ditzatela eta plataformara igo etab. Modu ezberdinak pentsatzen ari gara.

Nola eragin du egoerak ikasleek ikasketa mailean?

Oraindik ez det uste eragin handiegia eduki duenik. Honek alde positiboa eta alde negatiboa du. Alde positiboa izango litza-ke, ikasleak ari direla kontu-



Agustin Urretabizkaia. MAGALE

ratzen bakarrik asko egin dezaketela. Ikasgelan daudenean ondoan beti laguntza dute, baina etxean daudenean euren kabuz moldatu behar dira. Beraien artean kontaktu asko egiten ari dira zenbait plataformen bitartez. Hori guztia lagungarria izan daiteke, hau guztia amaitzen denean, ohartu daitezkeen bakarrik ere gauzak egin daitezkeela, eta ondo gainera. Ikasle batzuentzako, berriz, zailtasunak sortu daitezke. Ikasle batzuk laguntza gehiago behar dute azalpenei eta ulermenari dagokionez. Bideokonferentzia egin daiteke, baina ez da berdina. Orduan ikasle batzuentzako zailagoa egiten ari da jarraipena. Beste batzuk adierazi digute, etxekolanak azkarrago egiten dituztela etxean, klasean distraitu egiten direlako.

"IKASLEAK BAKARRIK GAUZA ASKO EGITEKO GAI DIRELA KONTURATZEN ARI DIRA"

Batxilergoak eta selektibitateak kezkatzen zaituzte?

Kezka puntu bat badaukagu. Batik bat ez dakigulako noiz egingo den. Hasiara batean, maiatza erdikalderako klaseak amaituta egon behar ziren, baina pentsatzen dut ezinezkoa izango dela. Orduan aipatzen dute uztailean atzeratuko dutela. Kezka puntu hori badugu, gehiegi luzatzearena. Hala ere, batxilergoko ikasleek lanean jarraitzen dute etxetik, badakitelako agian selektibitatea egin beharko dutela.

Alor psikologikoak kezkatzen zaituzte?

Oraindik ez dugu horretan pentsatu. Irakasleak eta tutoreak kontaktuan daude ikasleekin eta hauek aspertzen direla etab kontaktuan diete. Baina astebete igaro da soilik, aurrerago ikusi beharko da zein den egoera.

"IKASLE BATZUEI ALDIZ, ESKOLAREN JARRAIPENA EGITEA ZAILAGOA ZAIE"



Amaia Amutxastegi. AIURRI

Egapeko Amaia Amutxastegi

Egape ikastolako Bigarren Hezkuntza DBHko zuzendari Amaia Amutxastegi Aiurrik egindako galde-sortaren harira, honako hausnarketa helarazi du: "Egapeko Bigarren Hezkuntza urteak dira baliabide teknologikoak txertatuta ditugula gure ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetan. Esan beharra daukagu 2012-2013 ikasturtean lortu genuela IKT Eredu maila aurreratua eta gaur egun, Urrietako ikastetxe bakarra garela ziurtagiri hau duguna.

Koronabirusaren krisia dela eta, eskola ez-presentziala eman beharrean aurkitu gara. Erronka ez da makala, baina ohikoa da gure egunerokotasuneko irakas-praktikan teknologia berrien erabilera eta daukagun esperientzia baliatzen ari gara orain.

Bestalde, egoera honek beste hainbat aplikazio erabiltzera eramán gaitu eta egun hauetan meet aplikazioaren bitartez bideokonferentziak egiten ditugu ikasleekin eta baita irakasleen arteko bilerak egiteko ere.

Eskolak emateko Google Appseko baliabideak (drive, classroom, hangout, meet...) eta liburu digitalak erabiltzen ari gara. Honela ikasleei komunikatu dizkiegu arlo bakoitzean egin beharreko jarduerak eta haiek egindakoak jasotzen ditugu. Modu honetara, irakasleek eta ikasleek arteko hartu-emanak bermatzen dugu.

Garrantzitsua da ikasleek lan plangintza jarraitzea eta eskola ordutegia errespetatzea etxean daudela ere, irakasleek lana programatuta dute eta zeregina badute. Lan ohiturak bermatzea beharrezkoa da, ez baitakigu krisi egoera hau zenbat luzatuko den. Ikasleek badakite noiz eta nola jarri daitezkeen harremanetan irakasleekin, are gehiago, pedagogia terapeutikoko irakasleak laguntza eskaintzen die on-line bere arreta jasotzen duten ikasleei.

Bestalde, tutoreek Inika bidez jartzen ari dira harremanetan familiarekin 2.ebaluazioa ondoren irakasle taldearen aldetik ikasleek jarraipenaren inguruko informazioa komunikatzeko.

Edozer zalantza edo kezka izanez gero, goizero zuzendaritzako kideak ikastolan gaude.

Momentuz gure ohiko programazioaren jarraipena egiten ari gara. Ikasleak motibatuta daude oraingoz eta ordutegiarekin jarraitzen dute.

Zuzendaritza ere familiarekin harremanetan gaude eta aholkuak eskaintzen ari gara etengabe gure gaztetxoek bere egunerokotasuna jarrai dezaten.

Gu ahalegina egiten ari gara ez-ohiko egoera honek gure ikasleengan eragin kaltegarririk izan ez dezan.

Egoerak psikologikoki eraginik ez izatea espero dugu, guk behintzat normaltasun osoz eta epe laburreko egoera gisa hartu dugulako. Eta horrela transmititu diegu gure ikasleei.

Gure kasuan batxilergoa izango litzateke ondorengo ikasketa eta ez digu honek kezkarik sortzen, denok egoera berdinean gaudelako. Gainera, gure aldetik krisi hau erronka moduan hartu dugu eta momentuz behintzat eraginkortasunez eta animosoki ari gara erantzuten".

"Merkatari txikiak azkenak gara katean"

JAIONE BITORIA ANDOAINO ANITA GOZOTEGIA

KORONABIRUSA MERKATARITZAN Jendaurrean lanean jardutea egokitzen zaien guztiek bezala, prebentzio neurriak betetzen ditu. Herritarren ezinegonaren lekuko zuzena da

Xabier Lasa ANDOAIN

Nola doaz egunak gozotegian osasun krisia piztu zenez geroztik?

Normaltasun batera iritsi garelako iruditzen zait, larrialdi egoeraren baitan. Beti bezala irekitzen dut denda, baina arratsaldeetan 19:00etarako ixten dut, prebentzio neurri gisa. Egunean zehar jendeak badauka behar duena erosteko denbora, eta ez dut uste eman behar zaionik aukerarik ilunabarretan ere kalean ibiltzeko.

Erosleku handietan bezala erosketak konpulsiborik bizitu izan al duzu?

Ez, inondik ere ez! Eromen hori saltoki handietako kontua izan da, eskaintza zabalagoa daukatelako seguruenara. Gurean, aurreneko egunetan oinarritzko bi edo hiru produktuengatik galdetzen zidan jendeak urduri samar, ogiarengatik batez ere, ea hurrengo egunean izango ote nuen. Baina egunak aurrera joan ahala, denok ere konturatu gara ez zaigula ezer faltako, oinarritzko elikagaiei dagokionez behintzat.

Arazorik hornitzaileekin?

Larrialdi egoera deklaratu eta aurreneko astean, niki eskaerak egin, eta ezinezkoa zutela erantzun zidaten, nahikoa zaukatezala saltoki handiekin. Zorionez, sartu garen aste honetan gauzak normaltzen hasi zaizkit. Pentsatzen dut antzekoa gertatu zaiela hainbat dendari txikiei. Oraintxe hasi naiz jabetzen bene-benetan, ahaltzuenen aurrean txikiak txiki garelako, gu bezalako merkataria azkenak garelako katean.

Bezeroak, betikoak al datozkizu?

Ez, antzeman daitezke aldaketak hori. Zahar asko etxean geratzen ari da, eta beren seme-alabak edo zaintzaileak datoz gauzak erostera. Jende heldu horrek kontzientzia hartu du zer gertatzen ari den, eta neurriak hartzen ari da. Nire etxetik



Jaione Bitoria, astelehen ilunabarretan. AIURRI

hasita, gurasoak jada kalera ez dira ateratzen, nik egiten ditut kaleko oinarritzko gestio guztiak. Noski, jada bertaratzen ez den beste giza taldea, haur eta gazteena da. Euren gurasoak datoz gozokiak erostera.

Zer nolako prebentzio neurriak hartzen ari zara dendan?

Lehen esan dudanez bezala, jendea orohar kontziente da osasun krisia benetakoa dela eta guztion hobe beharrez hartu behar direla prebentzio lanak. Alde horretatik, bezeroei ez zaie gehiegi esan behar: bi baino ez dira sartzen barrura, distantziak errespetatzen dituzte... Denda barruko neurriak dagokionez, zorrotz ari naiz garbiketekin. Mostradoreak edo eskuak etengabe garbitzen ditut eta egunero denda ireki aurretik eta itxi ondoren ere, dena garbitzen aritzen naiz. Hori bai, ez dakit zuzen ari naizen jokatzeko ala ez, baina maskarilla ez dut janzten normalean; iruditzen zait gehiegizko alarma piztu neza keela bezeroen artean. Nahiko urduri etortzen da jendea bestela ere, gehitzen hasteko antsietate puntua...

Urduritasuna aipatu duzu...

Ezjakintasuna dago, bai, beldurra erraz zabaltzen baita. Egoeraren gainean hizketan hasten naizenean bezero batzuekin, telebista ez kontsumitzeko hainbeste gomendatzen diet. Ez da egia zenbat eta albiste gehiago ikusi, entzun edo irakurri, informazio gehiago daukagunik, edo gehiago dakigunik. Kontrakoa gertatzen da maiz, gainezkako informazioak antsietatea puzean du, eta burua nahastu. Sare sozialetatik datorkigunarekin ere kontuz ibili behar genuke, dena ez baita egia. Generalean, gizakiok gezur potoloak eta berri alarmistak aisa barneratzeko joera daukagu, modu sinesgarrian aurkezten badizkigute.

Jendeak estimatzen al dizu denda egunero irekitzeagatik?

Bai, batzuek espreski eman izan dizkidate eskerrak. Nik uste une larri honetan jendeak badakiela baloratzen jendaurreko zereginetan ari garenok egiten ari garen ahalegina. Batek baino gehiagok esan dit osasungintzako langileek ez ezik, guk ere merezita dauzkagula 20:00etan balkoietan egiten diren txaloak.

"Bihotzetik atera zaidan zerbait da auzoko animatzailea izatea"

AMAIA BAKERO KALETXIKITARRA

Auzokideen arteko armonia haziz joan da egoera berrian

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Kaletxikitarrentzat animatzaile papera betetzen ari zara. Zer moduzko giroa dago auzotarren artean?

Bozgorailua etxean genuen, eta auzoan Txoria txori abesteko ekimenarekin hasi zen dena. Iluntzeko 20:00tan txaloka hasi eta ondoren abestia jarri genuen. Oso hunkigarria izan zen. Auzo txikia da gurea, eta elkarrekin ondo konpondu gara beti. Une hauetan elkartasun hori handiagoa da. Esango nuke egunero iluntzeko hitzordua iristeko zain gaudela.

Kantu batek bestera eraman zuen, eta egunetik egunera ekimena handitzen doa: Haurrentzat kantak, helduentzat, dantzagarriak... baita negar egitekoak ere.

Egun zailak bizi ditugu eta zuek horri aurre egiteko auzoan martxa jartzea eta animoak zabaltzea erabaki duzue. Nola antolatzen ari zarete, balkoitik balkoira?

Bai, gehienontzat musika bihotza alaitzeko herramintarik onena da. Denak elkarrekin gaudela eta egoera nola edo hala aurrera emango dugula adierazteko modua da. Egunean egunera burura etortzen zaizkit ekimen ezberdinak, auzotarrak baten urtebetetzea ospatu genuen. Udaberria dela eta, balkoia eta leihoak alaitzeko eskulanak egin ditugu.

Balkoitik balkoira ideiak partekatzen ari gara. Egun hauetan harategian edo okindegi berrian auzotarrek gustuko kantua proposatu dezakete, horretarako utzi ditugun orrian idatzita. Larunbatero, gainera, moztortuta agertzeko proposamena lutzatuko dugu.

Oso une alaiak ditugu, dantzan topera gabiltzanak. Baina badira une hunkigarriak. Auzoko laguntzat kantua ipini genuenean, adibidez. Bestea, oso polita, Iruñean dagoen neska andoindarrar bati eskaini geniona. Erizaina da, eta kutsatuta dago. Ondo dago, etxean, eta hari ere tartetxoa eskaini nahi genioen.



Amaia Bakero. AB

Zer dela eta animatzaile izateko erabakia?

Animatzaile bezala hartu dudanez ez da alde aurretik landutako zerbait izan. Horrela tokatu da, eta ni oso pozik nago. Esan bezala, Kaletxiki oso elkartzuta dagoen auzoa da eta une hauetan askoz lotura estuagoa antzematen da. Lehen egunetan hainbeste ezagutzen ez genituen bizilagunak zeuden, lotsatu samar zeudenak, baina gaurko egunez denak bat eginda gaude. Egoera ez da batere erraza inorentzat. Jende heldua dago, eta une hauetan umeentzat oso gogorra da etxe batean egon behar dutelako. Eurenatik guztien ahala den gehiena eta ahalik eta ondoen egiten saiatzen ari naiz. Bihotzetik atera zaidan zerbait da.

Hitzorduk egunero

- Astelehenetik ostiralera: 20:00tan Txalo saioa, eta ondoren kantu bat edo beste.
- Ostirala: 20:00tan Txalo saioa, eta gaua zertxobait gehiago lutzatzen da.
- Larunbata: 20:00tan Txalo saioa, eta moztortuta gaua.
- Igandea: 12:30 Bermuta eta musika.



EH Bilduko udal taldea telematikoki bilduta dagoen irudia. www.andoain.ehbildu.eus webgunean neurri osoak kontsulta daitezke. EHB

EH Bilduren proposamenak

"Argi dugu hau ez dela lehia politikorako garaia, elkarlanerako baizik", adierazi dute ohar bidez

Erredakzioa ANDOAIN

"Egia da ere, hartu diren erabaki guztiekin ez gaudela ados, eta hori esatea ere beharrezkoa da", erantsi dute ohar berean. Proposamen zehatzak aurkeztu dituztela iragarri dute: Udal langileak soilik ezinbestekoak direnak egotea lan presentziala

egiten, eta hauek ondo babestu daitezela; bolondres taldearekin interlokuzio zuzena irekitzea, baserritarren produktuari irteera emateko plana egitea. egoera ahulenean daudenekiko laguntza fiskalak; eta azkenik 500.000 euroko emergentzia fonda irekitzea.

Udalak laguntza lerro ezberdinak iragarri ditu

Autonomoentzat eta merkatarientzat, bereziki. Egoera ekonomiko ahulenean direnentzat, aldiz, neurri fiskalak



Udal gobernuak agerraldia egin zuen, astelehen arratsaldean. UDALA

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Udalaren krisi mahaian hainbat erabaki hartu zituzte. Asteleheneko bileraren ostean, Lainez alkateak eta Izagirre alkate-ordeak agerraldia egin zuten. Fiskalitateari dago-

kionez, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin koordinazioan, udal zerga eta tasen ordainketa atzeratzea aztertzen ari dira. Era berean argiaren, uraren eta gasaren erreziiboak ordaintzeko diru-arguntzak indartuko dituz-

tela iragarri zuten. Alta emanda dauden Andoaingo autonomoentzat ere laguntza-lerroa sortzea iragarri zuten.

Gizarte mailari dagokionez, Etxez etxeko laguntza indartuko dutela erabaki dute, eta baita elikagaiak erosteko partida bat sortu ere.

Merkataritza eta ostalaritza-rako laguntza lerroa iragarri dute, hala nola merkatuko ekoizle eta saltzaileentzat.

Iragarpenak izan ziren, zehaztapen gehiagoren faltan.

Gomendioak

Krisia sortu zenetik, Udalak gomendio ezberdinak zabaldu ditu. Emakumeentzako arreta-telefonoari dagokionez, astelehenean oharra zabaldu zuten: "Emakumei gogorarazi nahi diegu Eusko Jaurlaritzaren SATEVI zerbitzuak (etxeko indarkeriaren edo sexu-erasoen biktima izan diren emakumeentzako informazio- eta arreta-zerbitzua) jarraituko duela laguntza eskaintzen 24 orduz, honako telefonoan: 900 840 111. Gainera, Udalarekin harremanetan jar daitezke 943 300 830 telefonora deituz".

KORONABIRUSA

1 **ESKUAK SARRITAN GARBITU.**

2 **EZTUL EDO DOMINISTIKU EGITEAN, ESTALI AHOA ETA SUDURRA UKONDOAREKIN EDO ZAPI BATEKIN.**

BOTA ZAPIA BEREHALA ETA GARBITU ESKUAK ALKOHOL-OINARRIA DUEN ESKUETAKO DESINFEKTATZAILE BATEKIN EDO UR ETA XABOJAREKIN.

3 **MANTENDU METRO BATEKO TARTEA, GUTXIENEZ, EZTUL EDO DOMINISTIKU EGITEN DUTEN EDO SUKARRA DUTEN PERTSONENGANDIK.**

4 **EZ UKITU BEGIAK, SUDURRA ETA AHOA.**

5 **ETXEAN ETA LEKU PUBLIKOETAN ESKUEKIN UKITZEN DIREN GAINAZALEN GARBIKETA AREAGOTU.**

ZER EGIN DEZAKET NIRE BURUA BABESTEKO?

OSAKIDETZA ETA OSASUN SAILAREN WEB ORRIETAN

Ez ohiko astelehena Urnietako kaleetan

KORONABIRUSA GIZARTEAN Txorien kantua sekula ez bezala entzun daiteke, hiriguneetako hainbat tokitan. Erosketak egiteko ateratzen dira herritarrak, baina gainerakoan hustasun handia nabari da

Xabier Lasa URNIETA

Urnietako kaleetan jendea apenas dabil. Txorien kantua sekula ez bezala entzun daiteke, hiriguneetako hainbat tokitan. Ohiko bilakatzen ari da hustutako paisaia urbana, osasun krisia zabaldu zenez geroztik. Eguerdia partean ikus daiteke giza mugimendu handiena; gehienak oinarritzko erosketak egitera irteten dira etxetik, edo zurrak pasiazera.

Kale garbitzaileak, Udaltzainak, eskailera mekanikoko langileak, genero banatzaileak..., horiek guztiak lanean ari dira. Haurrik ez kalean, ezta euren oihu edo garraisirik ere. Etxeetako balkoitan jolasean bai, bakan batzuk behintzat.

Maskarilla jantzita aurreko egunetan baino jende gehiago dabil. Idiazabal kalean Udaltzaingoak kontrola jarri du, behar-beharrezkoa ez den gidarien joan-etorria ekiditeko. Azken egunetan isun bat edo beste jarri behar izan dutela aitortu dute udaltzainek.

Niko Urnietako udal langilea da. Herrian irekita dauden merkatalgune, banketxe eta farmaziatan zein udal instalakuntzatan autobabaserako maskarillak banatzen aritu da goiz partean. BM, Muazpi, Ogi Berri, Euskadiko Kutxa, Buruntza estankoa, Eko Tolosa, Eroski, Kutxa, Odriozola, Arkupe, Caja Rural, Labetxo, Ixtaspe, Ixtaso Arraindegia, Bikain eta Tanco merkatalguneetan, eta, baita Udaleko ardurapeko honako eraikin eta sailetan ere. Hots, Bertan, Hirigintza, Udaltzaingoa, Lekaio eta Gizarte Zerbitzuetan; udal ordezkari politikoen artean ere banatu ditu maskarillak.

Konfinamendua dela eta herritarren animu egoera altxatzeko asmotan, zenbait balkoietan mezuak zintzilikatu dira. Konparazio batera, "Animo Urnieta" dio batek, "Andra tutto bene" (dena



Ohiko bilakatzen ari da hustutako paisaia urbana, osasun krisia zabaldu zenez geroztik. Idiazabal kalea hutsik ageri zen, astelehen eguerdian. AIURRI

**"ANIMO URNIETA",
"ANDRA TUTTO BENE"
BEZALAKO MEZUAK
IKUS DAITEZKE LEIHO
ETA BALKOJETAN**

ondo irtengo da, italieraz) beste batek.

Okindegiko ilaran, zain, Luisa Cueli Arantzazu ospitaleko langilea topatu dugu. Arratsaldeko lan-txanda egokitzen zaio, eta erosketetan dabil lanera abiatu aurretik. "Farmaziako departamenduan aritzen naiz; 50 bat langilek osatuko dugu bertako lan-taldea. Ospitaleko barne funtzionamenduko martxa hornitzeaz arduratzen gara; horretaz gain, tratamenduan daudela-eta botiken bila etortzen diren herritarrei ere eskaintzen diegu zerbitzua. Gomendatzen diren ohiko neurriak hartzen ditugu, eta desinfekzio lanak egiten ditugu maiz, baina faltan botatzen dugu ospitaleko langile guztiei testak egitea. Estatuko beste ospitale askotan baino hobe gabiltza oraingoz, eta egoera nahiko kontrolatuta dago, baina halaber, kontziente gara birusa edo "xomorroa" ospitalean barruan dagoela.

**HERRITARREN BABESA
BIZIKI ESKERTZEN DU
ARANTZAZU
OSPITALEKO LANGILE
DEN LUISA CUELIK**

Egunez egun gauzak aldatzen doaz, eta baliteke hurrengo egunetan test horien txanda langile guztiei iristea".

Herritar guztiek sentitzen duten kezka berbera bizi dute osasungintzako langileek, Cuelik aitortu duenez. "Hori bai, Osasun krisiak protagonismo berezia eman digu, eta arduraz jokatzen saiatzen ari gara, egunero lanpostura joanez eta egokitzen zaizkigun zereginei erantzunez". Bestalde, Cuelik adierazi du izugarri ari direla eskertzen gizartetik heltzen ari zaizkien elkartasunezko keinuak. "Bizipoza eragiten dute, aurrera segitzeko motibatzen zaituzte. Hala ere, esker oneko txalo horiek luzatuko nizkieke herriko dendariei, garraiolariari eta gizarteak aurrera segi dezan ezinbesteko lana burutzen ari diren herritar guztiei. Guztiok ere, esperantzara kondenuatuak gaude. Zer bestela?".

Udaltzaingoen kontrola

Herrikide gehienek jokabidea balioan jartzearekin batera, Urnietako Udalak zuhur jokatzen ez dutenei mezu argia zabaldu zien martxoaren 19an: "Hemendik aurrera, neurri murriztaileak betetzen ez dituzten pertsonak zigortuko ditu, guztion osasuna baitago jokoan. Ertzaintza ere kontrolak egiten ari da Udaltzaingoarekin batera, neurri horiek betetzen direla bermatzeko".



AIURRI

Zerbitzuen berregituraketa

Koronabirusak hankaz gora jarri ditu dinamika guztiak. Alternatiba gisa, kasu guztietan zerbitzu telematikoa eskainiko da. Urnietako Gaztelekuak, esaterako, Instagram baliatzen ari da. Musika eskolako irakasleak whatsapp-a edo posta elektronikoa erabiltzen ari dira. Kirol sailetik, etxean ariketak egiteko bideoen edizioa iragarri dute.



AIURRI

Udal zerbitzuak

Urnietako Udalak Bertan herritarren arretarako zerbitzua ixtea erabaki du, alarma egoerak iraun bitartean. Herritarrek udalarekiko harreman guztiak telefonoz edo erregistro elektronikoko bidez egin beharko dituzte.

- Bertan 943 00 80 00.
- Udaltzaingoa 943 00 80 90.
- Kontu hartzailetza 943 00 42 24.
- Gizarte Zerbitzuak 943 00 83 49.



AIURRI



Urnietako
udala



Agate Arregi eta Xabier Irastorza urnietarrak, duela egun gutxi, Asia aldean zeuden bidaiak gozaten. Dagoeneko Urnietan dira, bidaiak luzea egin eta gero. XI/AA

Andoni Urbistondo URNIETA

Sinetsi ere ez zuten egingo, bost hilabete atzera euren bizitzako bidaiak halako bukaera bihurria izango zuenik. Bost hilabeteke oporraldi luzean paradisu paradisu ibili dira, zortea lagun Covid 19 koronabirus gaitza atzean uzten, baina Malaysian geratu behar izan dute gorpila. Erotzeko moduko 50 ordu bizi izan zituzten pasa den astean, Malaysiak herria itxi eta handik marxa egin ezean, handik atera ezinik tarte luzea egin beharko zutela jakinda. Orain etxean dira, zaintza berezian apirila hasi bitarte. Ibili diren tokietan gurean baino askoz konpromiso sozial handiagoa dutela diote: "Eskarmentua dute antzeko gaitzekin, hemen ez bezala".

Aurreneko gauza, nola zaudete osasunez?

Agate Arregi: Ondo. Itzulerako bidaiaren herri askotako jendearekin egon ginen kontaktuan, eta Urnietara iritsi bezain pronto medikuekin harremanetan jarri ginen. Etxean berrogeialdia gordetzeko esan digute, badaezpada, 15 egunez.

"Egun batean paradisu geunden; hurrengoan kartzelan"

KORONABIRUSA NAZIOARTEAN Bat-batean bukatu behar izan dute Agate Arregi eta Xabier Irastorza urnietarrek Asia hego ekialdean barrena egiten ari ziren bidaiak. Etxean dira, Malaysiako Gobernuak herrialdea itxi behar zutela jakinarazi ostean

Xabier Irastorza: Ez daukagu koronabirus gaitzaren sintomarik, momentuz, baina apirila hasiera arte egon beharko dugu zain, ziurtasuna izateko.

Hartutako jipoiari buelta eman al diozue?

X.I. Ari gara, jet lag-a, ero moduan egin genituen bizpahiru egun amaigabeak...

Irakurlea kokatzeko, Asia hego ekialdetik bidaiak egiten ari zineten. Urriari abiatu zineten Urnietatik, eta apirila bukaeran zenuten bueltatzeko asmoa.

X.I. Bai. Bost hilabete daramatzagu hara eta hona. Txina, Filipina, Indonesia, Singapur, Vietnam, Kanbodia eta Malaysian ibili gara, Asiako hego ekialdean. Sri Lanka zen azken geltokia, baina beste batean izan beharko du.

A.A. Kuriosoa da, bost hilabete eman ditugu koronabirus gaitzetik ihesi, ihesaldia luzatzea ezinezkoa izan zen arte.

Nola izan da zuen harremana Covid 19 birusarekin?

A.A. Lehen kontaktua urtarrilean izan zen, Kanbodian. Wuhan-en birusa garatzen hasi zela entzun genuen, eta Txinako eskualde horretan zabaldu egin zela. Kanbodiako kostaldeko herri batean kasu bat agertu zela jakin genuen, Sihanoukville herrian. Bertan txinatar asko zegoen, Txinako Urte Berriagatik oporretan zeudelako. Thailandian ere kasu batzuk bazeudela esan ziguten, baino ez genuen halako alarmarik sumatu. Kontrolatuta zeukaten. Aireportuetan eta zaintza zorrotza egiten zuten, baina bestelakoan murrizketarik ez zegoen. Edo guk ez genituen sumatu. Eta mugitu, mugitu gara asko.

X.I. Kanbodiatik Malaysiara joan ginen, eta interneten Euskal Herrian eta Italian kasu batzuk agertu zirela irakurri genuen. Malaysian 100 bat kasu zituzten zenbatuta, bertakoek esaten zigutenez, baina kopurua ez zen igotzen. Langkawi uhartera joan ginen, beti ere etxetik zer berri iristen zen adi. Ondoren Malaysia iparrerrantz jo genuen, tea landatzen duten lur sail berezi batzuk bisitatzeko, eta hotelean check out-a egiterakoan, harreraren esan ziguten herriko agintariek etxeratze agindua jarri behar zutela indarrean ordu batzuetan, hango meskita batean positibo batzuk antzeman zituztelako.

A.A. Ordu batzuk esan ziguten... Ez genekien zenbat ordu izango

ziren, eta hurrengo destinora bidean, ferry batean ordu pare bat eman ondoren, posta elektronikoa kontsultatu nuen, eta urgent zioen abisua neukan, Espainiako Enbaxadako mezua. Telefono zenbaki bat erakusten zuen, eta zenbaki horretara behala deitzeko aholkatu. Deitu nuen, eta esan zidaten etxera bueltatzeko hegaldia hartzeko lehenbailehen. Gaixotzen baginen, han ez gintuztela artatuko esan ziguten, segurua izanda ere. Egoera berezia denez, lehentasun osoa bertako herritarrek zutela esan ziguten.

Eta nola erreakzionatu zenuten?

A.A. Momentuan bertan hegaldi bat hartu genuen Qatar Airways konpainiarekin, Kuala Lumpur hiriburuko aireportura garaiz iritsiko ginela ziurtatu ondoren. Kuala Perlis herrian geunden, eta han autobus bat hartu genuen Ipoh herriraino, 900 kilometroko bidaia zortzi ordu luzez. Gaua pasa genuen Ipoh-n. Handik Kuala Lumpurrera lau ordu gehiago genituen. Ipoh hirian, autobus geltokiko langileek eta hoteletako harreretak beharginek aireportua itxita zegoela esan ziguten, alferrik joango ginela haraino. Jakina, beldurtu egin ginen asko. Berriro enbaxadara deitu genuen, eta zorionez gezurtatu egin ziguten herritarren ahotik entzun genuena. Ipoh hiriko hotelean gaua pasa, eta goizean goiz enbaxadara deitu genuen berriro. OK-a eman ziguten bigarrenez, txartela erosi genuen hegazkin konpainiak hegan egiten bazuen, ba guk ere hegaldia izango genuela.

X.I. Arratsaldeko 16:00tan taxia hartu genuen Ipoh-n, baina kostata, autobusik ez zegoelako, eta hiria erabat itxita. Supermerkatuak bakarrik zeuden irekita. Ez gintuen inork eraman nahi, eta azkeneko 80 urteko agure bati esker iritsi ahal izan ginen Kuala Lumpurreko aireportura.

Ze panorama ikusi zenuten aireportuan? Kaos handi samarra, pentsatzen dut...

A.A. Beldurtzeko modukoa. Lepo betea zegoen, milaka pertsona han, gure egoera berean. Infor-



Paradisuaeren pareko toki ugari ezagutu dituzte, bidaian zehar. XI/AA

mazio pantailetan begiratu genuen, ea gure hegaldiaren informazio agertzen ote zen, baina hegaldi denak suspendituta zeudela ikusi genuen. Denetan cancelled hitza agertzen zen. Aireportutik irten ezinik geratu beharko genuela uste genuen. Qatar Airways konpainiako lehiatilara joan ginen galdetzeraz, eta han gaueko 23:00ak arte itxaron beharko genuela esan ziguten. Gure hegaldia goizaldeko ordu bietan zen, eta informazioa hiru ordu lehenago agertzen omen zen pantailetan.

X.I. Aireportutik kanpora atera ginen, ze barruan histeria handia zegoen, jendea maskaratxoarekin eta beste. Gaueko 23:00ak iritsi zirenean hegaldia available edo prest zegoela ikusi genuen, eta orduan hasi ginen sinesten Malaysiatik aterako ginela, une horretan geneukan lehentasun bakarra. Gurea izan zen Malaysiatik atera zen azken aurreko hegaldia. Ordu pare bateko margenagatik irten ahal izan genuen Kuala Lumpur hiririk. Aireportuan Bilboko jendea ezagutu genuen, eta han geratu ziren zain. Ez dakigu etxera bueltatzeko aukera izan duten edo ez.

Lehen hegaldia hartu ondoren, lasai geratu zineten.

"AGURE BATI ESKER IRITSI AHAL IZAN GINEN KUALA LUMPURREKO AIREPORTURA"

"GUREA IZAN ZEN MALYSIATIK ATERA ZEN AZKEN AURREKO HEGALDIA"

A.A. Bai. Doha-n, Qatarko hiriburuan genuen geltokia, baina ez gintuen arduratzen, transitoan geundelako. 7 orduko hegaldia izan zen Doharaino, eta handik Bartzelonara, ez naiz gogoratzen jada zenbat ordu gehiago, beste hainbeste, gutxienez. Hor ere zorzea aldeko izan genuen, Dohatik Bartzelonara zihoan gurearen aurreko hegaldia bertan behera geratu zelako.

Arazorik izan al zenuten Bartzelonako El Prat aireportura iritsi zinetenean?

X.I. Ez. Aireportuko Guardia Zibilei gure kasua esplikatu genien eta ez ziguten arazorik jarri. Auto bat alokatu genuen, Donostiaraino. Huesca aldean errepede kontrol bat pasa genuen, baina Guardia Zibilarik hegaldiko txar-

telak erakutsi eta listo, ez ziguten oztoporik jarri. Malaysian ferry-a hartu genuenetik, guztira, 50 bat orduko road movie-a bizi izan dugu (akzio pelikula, ingelesez).

Zer moduz etxean, Urnietan egin dituzuen lehenengo egunetan?

X.I. Osasun sailarekin harremanetan jarri ginen aurren-aurrena, gure kasua azaldu, eta ea nola jokatu behar genuen. 15 bat egun isolatuta egoteko agindu digute, apirilaren 2a arte. Malaysia ze egoeratan zegoen ere begiratu dugu sarean. Dena itxita dago martxoaren 31era arte, eta inguruko herriak ere bai. Eskerrak handik atera ahal izan ginela. Herrian, eta Euskal Herrian, oro har, itxura txarra sumatu dugu. Etxera bueltatu,

bost hilabete eta gero, eta familia eta lagunekin egoteko aukerarik ez izatea, besarkatzea, gogorra egin zaigu. Gustura gaude, dena den. Egun batzuk ero moduan ibili eta gero, ondo etorri zaigu deskantsatzea. Egun batean paradisuan geunden, eta hurrengoan, kartzelan. Horrela sentitzen gara.

Itxuraz, ibili zareten eskualdeak ez dauka Euskal Herrian, Mendebaldeko jendartean dugun aurrerapen teknologikorik, eta hemengo biztanleonek ustetan, han koronabirus gaitzak hedapen handiagoa edukitzea litzateke normalena, baina ez da hala izan. Zergatik?

X.I. Han eskarmentu handiagoa dutelako halako gaitzekin. 2005ean SARS delako gaitza pasa zuten (ingelesez severe acute respiratory syndrome, euskaraz arnasteko sindrome zorrotz larria). Orduz geroztik, Taiwan, Hego Korea eta beste herri asko beste pandemia bat hartzeko zain daude, prest, hamarkada luze bat.

A.A. Kontzientzia ere erabat ezberdina da hango gizartea. 50 kasu badaude, dena itxi eta kontrolatu egiten dute, ez dira epe luze bat egoten neurriak hartu gabe, edo zalantzarik egiten. Inor ez da kalera ateratzen, arauak betetzen dituzte zorrotz. Erosketak astean behin egin behar badira, ba astean behin egiten dituzte. Garraio publikoak, taxisak, dena errotik mozten dute, eta jendea etxean geratzen da. Arauak hausteko maltzurkeriarik egin gabe. Osasunik gabe ezer ez dutela sinetsita daude, eta praktika eramaten dute, muturrearaino. Gu Bartzelonara iritsi ginen hegazkinean hainbat herritako bidaiariak zeuden, eta denak Bartzelonara joan ziren. Pentsa hor ze arriskua dagoen, ze foku sor daitezkeen birusa zabaltzeko.

Zuen bizitzako bidaia horrela bukatu izanak ere zer pentsatua emango dizue, ezta?

X.I. Beno, esan dugun bezala, koronabirus-a gertu genuela sentitzen ibili gara egun askotan, baina beti salbu. Egoerak bueltarik ez zeukan arte. Hilabete eta erdi genuen oraindik aurretik, Sri Lanka bisitatu nahi genuen lagun batzuekin, bidaia ezin hobe bukatzeko, baina ez da posible izan. Etxean gaude, ondo, eta gaitzerdi. Bost hilabete zoragarri pasa ditugu, eta hori betirako gure barruan emango dugu.



Itzulerako bidala luzea izan da, oso. XI/AA

"Ordutegiei eustea garrantzitsua da"

MAIDER GOROSTIDI KARRERA AGIFES ELKARTEKO PSIKOLOGOA

KORONABIRUSA GIZARTEAN Konfinamendu egoeraren aurrean, ordutegiei eustea oso garrantzitsua dela nabarmendu du andoaindarrak

Ainhoa Arozena ANDOAIN

Ez gaude etxean hainbeste ordu igarotzeraz ohituta... Psikologo bezala, zein gomendio luzatuko zenuke egoera berezi honi ondo erantzuteko?

Ezin miraririk egin, baina garrantzitsua da egunerokotasunean ordutegiei eustea. Ordu egokietan oheratu eta jaikitzea. Otorduak ere ondo mantentzea, orduak finkatuz. Etxetik lanean ari gara asko eta lan ordutegia zehaztea ere beharrezkoa da. Tartean umeak ere badira etxe askotan eta haiei kasu egiteko denbora hartzea ere bai, noski! Berrogeialdia ondo bideratzeko garrantzitsua da ordutegiei garrantzia ematea.

Goizean jaikitakoan, kalera abiatu beharko bagenu bezala prestatzea komeni da. Etxeko zapatilak jantzita egon arren, dutxatu, ondo gosalduta eta kaleko arropa jantzea gomendatzen dut, ez egun osoan zehar pijama jantzita etxean egotea. Ezberdin hasten da eguna dutxatu eta arropa garbia jantzita. Egunari aurre egiteko indarra ematen du bakoitzak bere eginbeharrei ekin aurretik prestatzeak.

Lotarako ordutegia errespetatzea ere oso garrantzitsua da. Loa gauzez eta aktibitate egunez mantentzea, bestela erabat nahas baitaiteke egoera eta ondorio kaltegarriak ekarri.

Etxe barruan kirola egiteko nahikoa mugatuta sentitzen gara, baina ahal dela, modu aktiboan mantentzea komeni da: luzapenak eginez, bestelako ariketak, musikaren laguntzaz edo gabe, baina mugituz, behintzat... Bakoitzak dituen aukeren arabera,

"JAIKITAKOAN, KALERA ABIATU BEHARKO BAGENU BEZALA PRESTATZEA KOMENI DA"



Maider Gorostidi. AIURRI

noski. Baina, aktibitateari eutsi behar diogu, 'jan eta egon, jan eta egon', gorputza gogortuta geratzen baita bestela.

Alderdi onei begira jarrita, zer ikasi beharko genuke ezohiko egoera honetatik?

Konfinamendu egoeraren alderdirik baikorrena, egin behar duguna egiten ari garela ohar-tzea da; etxean geratzea dela egoera honetatik atera ahal izateko eman dezakegun pausorik onena. Egunerokotasunean korrika bizi gara, presaka beti, eta bat-batean egureroko erritmo bizi hori erabat moteldu zaigunean, oso momentu politik sortzen direla ikusi behar dugu. Eta, dudarik ez, etxeko goxotasuna aprobetxatu behar dugu, momentu berezi horiek bizi. Oraintxe dugu momentu txiki-handiez gozatzeko momentua!

"LOTARAKO ORDUTEGIA ERRESPETATZEA ERE OSO GARRANTZITSUA DA"

Gainera, egoera hau oso baliagarria da gogoeta egin eta gure eguneroko martxa hori aztertzeke.

Zer moduz ari zara moldatzen etxetik lanean?

Agifes elkarteko psikologo gehienak etxetik ari gara lanean, baina pisu tutelatueta gehitu egin dugu hezitzaileen presentzia. Eguneko aktibitateak erabat murriztu direnez, goiz eta arratsalde indartu egin dugu haien laguntza.

Ni, psikologo bezala, etxetik ari naiz kasu ezberdinen jarraipena egiten. Telefonoz nahiz bestelako plataformei esker aritzen naiz lanean, kasuan kasu, bakoitzak behar duen maiztasunari erantzunez. Egia esan, kosta egiten da. Dei asko egiten dut egunean zehar eta arreta berezia jarri behar izaten da, zuzeneko elkarrizketetako detaile ugari ez baita ikusten telefono bidezko elkarrizketatan. Baina baditu bere alde onak ere, maiztasuna handiagoa baita.

Hainbat Gomendio

- Errealitatea onartu eta ondo jokatzeko ari garela jabetu.
- Egoki informatu.
- Lagun eta ingurukoekin harremanetan mantendu.
- Aprobetxatu momentua.
- Landu irudimena.
- Eutsi umoreari.

"EGOERA HAU OSO BALIAGARRIA DA GOGOETA EGIN ETA GURE EGUNEROKO MARTXA AZTERTZEKO"



AIURRI

Hitzorduak iluntzero

20:00ak iristean, herritako jende asko txalo egitera irteten da balkoira edo leihora. Osasun sailekoei eskerrak emateko modua da. Izan dira hitzordu osagarriak, esaterako, Erregearen mezuarekin batera deitutako lapiko-jotzea.

Egoera zaila bizi dutenen egunerokoa arintzeko sarea

KORONABIRUSA GIZARTEAN Andoainen eta Urnietan elkartasun sareak osatzen ari dira

Erredakzioa ANDOAIN

Elkar laguntzea ezinbestekoa izango da luzatzen ari den konfinamendu egoerari aurre egiteko. Aukera ezberdinak daude.

Andoain, Guztion Artean

Jaurlaritzak "Guztionean" elkartasun-sarea sortu du erakunde publikoen, Gurutze Gorriaren edota Caritasen lankidetzarekin, betiere Osasun Sailaren gidalerroei jarraituz. Parte hartu nahi izanez gero:

- Gurutze Gorria: 945 22 22 22.
- Caritas: 688 662 773.

Andoaingo Covid Bolondresak

"Jakinarazi nahi dizuegu jada lanean hasi garela Gurutze Go-

rriarekin elkarlanean. Mezu asko jasotzen hasi gara boluntario izan nahi dutela adieraziz".

- Telefonoa: 662 561 185.
- Facebook, Instagram: Andoaingo Covid Bolondresak.
- E-posta: covid.bolondresakan-doain@gmail.com.

Urnietan


Gizarte Zerbitzuen saila 65 urtetik gorakoekin eta gaixo edo bakartuta daudenekin ari da lanean. Elikagaiak edo botikak erostera irteteko arazoak izan ditzaketen pertsonak izan daitezke. Identifikatu gabe dagoen pertsonaren batek ere behar horiek balitu, Udalera dei dezake.

- Telefonoa: 943 00 83 49.

Minbiziari lotutako arreta

AECC Gipuzkoa Minbiziaren kontrako elkarteak, minbizi duten pazienteei eta haien senideei begira, laguntza psikologikorako eta arreta sozialerako doako zerbitzua sendotu du. Psiko-onkologian espezializatutako 7 psikologo eta 5 gizarte-langile ari dira lanean.

- Donostia: 943 45 77 22.
- Tolosa: 943 65 21 43.



AECC

Eduki osagarriak aiurri.eus webgunean

KORONABIRUSA KOMUNIKAZIOAN Koronabirusak aktualitate osoa bereganatu du, gizarte bizitzari lotutako kirol, kultur, gizarte eta aisialdi mailako hitzordu guztiak bertan behera geratu baitira. Aiurri.eus webgunean aktualitatea eta eduki osagarriak uztartu dira

Erredakzioa ANDOAIN

Egoera berrian, eduki berriak. Horixe izan zen Aiurriko lantaldearen erreakzioa, Osasun Aler ta egoera iragarri zutenean. Egunerokoari lotutako albisteak albo batera utzi gabe, konfinamendua arinago egiteko kanal berriak sortu dira. Talde lana da, eta horrexegatik Aiurritik eskertza adierazi nahi diegu kolaboratzaile guztiei. Kanal berriak:

- **#BertsoVID19:** Bertso katea, dagoeneko aski ezaguna egin dena. 400 lagun inguruk parte hartu dute, adin guztietakoak.
- **Teleirudimena etxetik etxera:** Garazi Kamio eta Ane Jalonen eskutik, hitza eta irudia. Eta, bereziki, umorea.
- **Ilustrazioa:** Egunerokoa komiki estiloan lantzen ari da Garbiñe Ubeda, irudi bakarrean.
- **Egunero hasten delako:** Olagaindik goizero-goizero argazkia, Diego Barrasaren eskutik.
- **Belabitik:** Maddi Trutxuelok argakia atera eta Joni Ubedak hitzez osatzen du.
- **Yoga:** Kulunkako Eiderren eskutik.
- **Andoaingo doinuak:** Olagain Txistularien ekimen polita.
- **Ipuina:** Marta Trutxueloren eskutik, Komunitatea atalean.
- **Ardogintza:** Aide Jauregi adi tuaren aholkuak.



Garazi Kamio eta Ane Jalon Zelai ahizpen paperean. AIURRI



Eiderren yoga saioak, sarean. AIURRI



Ilustrazioa, egunero sarean. AIURRI

#BertsoVID19 ekimenera ehunka lagun kateatu dira

Konfinamenduari aurre egiteko proposamen ezberdinak abiatu ziren Aiurritik. Bertso bidezko kateak sekulako arrakasta izan du. 400 pertsona inguru kateatu dira, gehiengoak eskualdekoak baina baita Euskal Herri osokoak ere. Zein da ariketa? Bertsoa bota eta ondoren bi laguni puntua jartzea. Twitter bidez lehenik zabaltzen da, eta ondoren Aiurri.eus gunean.



692 73 80 94 telefono zenbakira bidal daitezke bertsoak. AIURRI



Urnietako odol-emaileak, urrian ateratako argazkian. AIURRI

Alerta egoerak ez zituen odol-emaileak atzera bota

KORONABIRUSA GIZARTEAN Larrialdi egoera honetan ez da beharrezkoa, elkartasunaren keinua da

Xabier Lasa URNIETA

Hogeita hamar urnietar agertu zen odola ematera, joan zen martxoaren 17an Anbulatorio zaharrean antolatutako saiora. Zorionez, konfinamendu egoera indarrean egonagatik ere, odol-emaileen kopuruari eutsi egin zitzaion. Erizainak beti bezala agertu ziren odol erauzketak egitera, eta beti bezala Urnietako antolaketa taldeko lau emakumeak ondoan izan zituzten: Santiaga, Manoli, Eugenia eta Izaskun. Normaltasun osoz igarozen saioa, hori bai, prebentzio neurri zorrotzak hartu ziren, launaka-launaka eta distantziak mantenduz aritu baitziren odola ematera bertaratu ziren urnietarrak.

Antolaketa taldeko Izaskun Minerrek poza agertu du, larrialdi egoera dela-eta ez baitzuten espero jende askorik agertzea: "Inor azalduko ote zen galdetzen genion elkarrri, baina ederki asko kunplitu zuten Urnietako odol emaileek. Gainera, bi pertsona berri azaldu ziren! Eskerrak eman behar zaizkie guztiei, egoera larri honetan erakutsitako eskuzabaltasunagatik".

Koronabirusak jota ospitale-tan dauden gaixoek ez dute odol

transfusiorik behar, baina odola beti da premiazkoa, batik bat bestelako gaixotasunak dituzten gaixo kronikoentzat edota ur-gentziatzko ebakuntza egin behar denerako.

Horrexegatik, Izaskun Minerrek adierazi du ezin garela erlaxatu odola ematearen ekin-tza horretan: "Ospitale-tan odola beti eduki behar dute prest, ez baitakizu noiz sortu litekeen haren premia".

Maiatzaren 11ko hitzordua berrikuntza eta guzti dator

Berrikuntzak datoz bi hilabetez behin egiten den Urnietako odol ematearen ekitaldian. Izan ere, aurrerantzean Etxeberri plazan dagoen anbulatorio berrian egingo dira odol erauzketak. Maiatzaren 11n jarri dute hurrengo hitzordua.

Izaskun Minerrek odol emaile izateko ezaugarriak betetzen dituzten urnietar guztiei deia egin die, bertaratu daitezten: "Inoiz ez da berandu, eta benetan merezi du gizartearen alde eskuzabal jokatzeko. Geure esku dagoen ekintza txiki eta xume horrek beste jende askoren biziak salba ditzakeela pentsatze hutsak, asebate behar gintuzke".

"ODOLA EMATEAK BIZIAK SALBA DITZAKEELA PENTSATZE HUTSAK ASEBETE BEHAR GAITU"

"EGOERA LARRIAN ERAKUTSITAKO ESUZABALTASUNA ESKERTU BEHARREAN GAUDE"



IRITZIA

IMANOL GOENAGA ANDOAIN

Batera, aurrera!

Zertan ginen orain hilabete? Gogoan dut nola lagunak Realaren kopako finalaz gozatzeko lotarako lekua bilatzen genbiltzan Booking-en, ezin toki librerik topatu. Hura zen gure buruhauste nagusia, gure drama. Inozoak gu. Nork esan behar zigun orduan COVID19 deituriko virus ezezagun batek guztia hankaz gora jarriko zuenik? Nork esan behar zuen gure konfort edo ongizatea mugatuko zirenik? Inork ere ez.

Inork aurreikusitako ezin zezakeen egoera bat kudeatzea egokitu zaigu. Eta hortxe dago gakoa, ezezaguna den desafio komun bati gizarte gisa nola aurre egin asmatzean. Ezezagunak beldurra sortzen du ordea, gure kontroletik at dagoen horrek zalantza betetzen gaitu. Ezezaguna den horrek aldrebestu egiten du whatsapp-aren bidez jardutera, pentsatzera edo bizitzera ohitu den gizarte *millenniala*.

Nik dagoeneko atera ditut ondorio batzuk. Ikasi dut badirela etxean geratzea zer den ulertu ez duten inozo egoista arduragabeak. Ikasi dut digitalizazioaren 4.0 gizarte honetan lan asko dugula oraindik telelana etxetik behar bezala egiteko. Ikasi dut orain arte ezagutzen ez genuen bizilagun "berri" horri igogailuan "egunon" esaten. Ikasi dut osasuntsu zaintzen gaituzten mediku eta erizainen lana iluntzero

txalotzen. Ikasi dut gure segurtasuna bermatzeko lanean ari diren ertzain, suhiltzaile, garraiolari edo garbitzaileen lana balioan jartzen. Ikasi dut superreko kaxan dagoen langileari irrifarre bat eskaintzen.

Etxeko sofan Netflix-ari begira orduak pasatzen ditugun zortedunok, erreflexionatu beharko genuke etxean elektrizitatea edo internet izatea bermatzeko lanean ari diren horiez. Edo herriko farmaziak medikamentuz betetzen dituzten pertsonak, edota okindegian metalikoan erosi ahal izateko kuxako kajeroak egunero hornitzen dituzten horiez. Dendetara barazkiak, haragia edo arraina iristea bermatzen duten lehen sektoreko emakumez eta gizonez, edota goizero autobusa abiarazi eta zerbitzua ematen ari diren gidariez.

Asmatu behar dugu gaixoei behar bezalako arreta ematen, gure osasuna zaintzen, higiene neurriak muturreraino ematen, antsietate edo paranoiak alde batera utzi, eta zentzuz eta lasaitasunez etxean gelditzen. Ez baita motza izango. Hau eta gero, ezer ez baita berdina izango.

Ziur naiz aurrera aterako garela, baina elkarrekin izan beharko du, guztion ahalegin kolektibotik, elkarrekin batera. Kolpe hau gaindituko dugu, ipiniko gara berriro zutik, egingo dugu aurrera!



IRITZIA

PABLO DE TORRES URNIETA

Koronabirusa, nire leihotik

Egutegi txinatarraren 4717 urteaz geroztik, joan zen urtarrilaz geroztik, alegia, Koronabirusaz hizketan ari naiz. Gure hornitzaile txinatarrak ezin izan zuten hainbeste esperotako Urteberri txinatarra ospatu, ezta euren lanpostuetara normaltasunez itzuli ere... Orduz geroztik eta gaurdaino, gure hornitzaile italiarrak ere gogoan hartuz, pandemia honen inguruan hizketan nahiz entzuten ari naiz, baita hura bizitzen ere.

Berehala iritsi zen gure artera eta bertan behera utzi zituzten kirol jardunaldiak, entrenamenduak, eskolak; alma egoera eta konfinamendua etorri ziren, supermerkatuetako ilara luzeak... Egun gutxiren buruan, 10.120 kilometrora zegoela esaten zen hura gure artera ailegatu zen.

Milaka lerro, orduak eta orduak irrati nahiz TVaren aurrean iruzkinak, bideoak, kontak ezin ahala whatsapp-mezu. Orain diogun guztia atzenda geratuko da seguruenik ordu edo minutu gutxi barru. Guztiontzat ezezaguna den egoera berrian gaude. Gure hiztegia zabaldu dugu: Koronabirusa, Covid-19, pandemia, alarma egoera, aurpegi-babes edo maskarilla ffp2... Ez dakigu zeintzuk izango diren biharko kutsatuen datuak, ez eman beharreko pauso berriak, ezta kutsatuta egongo ote garen edo sendatuta ere.

Dakigun gauza bakarra, gaur gertatzen ari dela. Egoera horri esker Euskadiko osasun zerbitzua oso ona dela ohartu gara, euren onena ematen ari diren profesional bikainak ditugula. Era berean, logistikako pertsonala, supermerkatuetako langileak, segurtasun gorputzak, auzoetako saltoki txikiak, garbiketa zerbitzuak, botikariak eta beti hor egon diren, dauden eta egongo diren profesional ugari. Eskerrik asko!

Aitak eta amak ere handiak zarete! Guztia emanaz, beste behin! Ikastarorik egin gabe hortxe: pailazo, animatzaile, papiroflexia, eskulan, mahai-jolas, tunel edo arku... Hori bai berrikuntza eta berrasmatea! Eguna joan eguna etorri, haur eta helduen ondoan zaudete, inguru goxatuz eta lasaituz.

Eta zenbat gazte ekintzaile! Joko birtualak sortu dituzte batzuek, batak besteari luzatzen dizkion erronka ezberdinak, Skipe, Whatsapp edo Hangoutseko elkarriketak...

Beharrezko distantzia mantenduz, janaria eramateko nahiz behar duten laguntza eskaintzeko bisitak egiten dizkiegu etxean dauden adineko pertsonak. Haiek ere teknologia berriak erabiltzen ikasi dute.

Txartel bidezko ordainketa indartu egin da, balkoietako omenaldi edo protestak, txistu

eta abeslarien emanaldiak, disko festak... Leihotik edo balkoietatik telefono finkoa dugula jabetu gara eta baita martxan dagoela ere.

Ikasle eta irakasleak ere erronka berri baten aurrean daude, etxean bertan, online bidezko eskola-ordu jarraietan.

Gizakiok gizarteratzeko dugun beharraz konturatu gara, bereziki.

Produktibitatea, lanordu luzeko lanaldiak eta kontsumoa gailendu dira orain artean eta, bat-batean, garrantzitsuena gure aurrean daukagula konturatu gara: geure buruak, geure familia eta lagunak, geure bizilagunak... Ez dugu azken modelitoaren, bitxien edo kotxe handien beharrik.

Gezur eta zurrumurruak alde batera utzi eta "ingeniari talde batek 3D inprimagailu bidez, low cost arnagailuak sortu ditu" moduko albisteen handitasuna azpimarratu nahi dut.

Handiak gara. Hau guztia azkar igarotzea nahi dugu, eguneroko bizitza egin nahi dugu. Laster elkartuko gara elkarte, plaza, parke edota herriko tabernetan, jolastoki ezberdinetan... Elkar besarkatuz ospatuko dugu Realaren gola eta gure bilobei azalduko diegu nola igaro genuen 3, 6 edo 8 asteko berrogeialdia.

Baina orain, ni etxean geratzen naiz.



andoaINDARRA
euskaraz

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeze etxeko harpidetza-sistema. Andoain urte osoko harpidetza-saria 39 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Aile batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetzak:
Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Banatazaileak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi eta Rocío Arias (Urnieta).

Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea

Zorion agurrak, merkatu txikiak:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOINGO UDALA



Urnieta Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Hikuntza Berdintasunerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



Gipuzkoako eraikin guztietan ari dira desinfekzio lanak egiten. AIURRI

Desinfekzio lanak egiten aritu dira Gipuzkoako Suhiltzaileak

KORONABIRUSA PREBENTZIOA Asteazkenean Andoingo San Juan Bataiatzailea zaharren egoitzan lanean aritu ziren

Erredakzioa ANDOAIN Osasun Sailak Koronabirusari aurre hartzeko hainbat neurri hartu ditu. Prebentzio mailan adinekoen egoitzak desinfektatzeko agindua eman diete Gi-

puzkoako Suhiltzaileei. Asteazken goizean Tolosako parketik hurbildu ziren, Ama Kandida etorbideko eraikinean deinfekzio lanak egitera. Tolosako zaharren egoitzatan izan ziren ere.



Lasaitasun mezua, barrutik. AIURRI



IRITZIA

IGOR BERE ANDOAIN

#UrdinakEtxean

Martxoaren 12an, erakunde ofizialek agindu zuten moduan, Ubitarte zelaia itxi egin zen eta jokalariek guztiak futbolik gabe geratu ziren. Hasieran, kalean kirola egiteko baimena zegoen baino berehala iritsi zen etxean geratzeko agindua.

Egun gutxitan konturatu ginen kategoria guztietako taldeok aurkari bera izango genuela: Covid-19 birusa hain zuzen ere. Eta denon artean lortuko genuela partida hau irabaztea. Nola? Talde bat izanez, guztiok etxean geratuz!

SD Euskaldunaren kanpaina parte hartzeko gonbidapena luzatu diegu gure jokalariei. Alde batetik, mugitzen ginena baino askoz gutxiago mugituko garelako orain. Eta, bestetik, klubarekiko gertutasuna mantentzeko. Horretarako, hainbat ekimen jarriko ditugu martxan egun hauetan zehar haur, gazte eta helduek gure klubarekin batera denbora tarte atseginak igarotzeko aukera izan dezaten. #urdinaketxean kanpainaren ekintzak bi esparrutan banatuko dira, arlo ludikoan eta kirol arloan.

Arlo ludikoa

Kluba osatzen dugun komunitatearen (haur, gazte, heldu) parte hartzea sustatu da. Argazkia ateratzera gonbidatu ditugu, eta hori sare sozialetara igotzera



—#urdinaketxean etiketa ipinita— edo posta elektronikoz bidalita. Argazkia bakarka edo taldean atera daiteke, baina argazkian Euskaldunako kamiseta agertu behar da. Horrez gain, Euskaldunako jantziak ere atera daitezke, bi marra urdin ere margotu daitezke aurpegian. Norberaren irudimenaren arabera ideia guztiak eskuzabalik jasoko ditugu.

Kirol arloa

Klubeko prestatzaile fisikoak den Jon Urdangarinek jarduera bereziak prestatu ditu, kategoria ezberdinetarako: Federatu mailakoei begira, 'Ariketa Fisikoa etxean' egiteko gida.

Futbol eskolakoentzat Antzara jokoa, bakarka edo familian ongi pasatzeko..

Horrez gain, entrenatzaileak jokalariekin harremana mantentzen saiatzen dira whatsapp taldeen bitartez. Beraien osasunagatik galdetzen diegu, eta etxean kirola egiteko gomendioak ematen dizkiegu.



POSTONTZIA

COVID BOLONDRESAK
ANDOAIN

Elkarlana

Andoingo Covid Bolondresen taldekook jakinarazi nahi dizuegu jada lanean hasi garela Gurutze Gorriarekin elkarlanean. Udalak ez digu aintzat hartu, baina ez dizkiogu bira gehiago emango gaiari.

Esanak esan, gaur, astelehena, erosketa taldetik lehen zerbitzua egin dugu Gurutze gorriarekin elkarlanean. Ospitalera joan dira errezeta batzuen bila eta guztia ongi irten da. Horrez gain, mezu asko jasotzen hasi gara boluntariotzat lan egin nahi dutela adieraziz.

Ederra izan da Andoindar batek etxetik ateratzeko zailtasunak dituen beste Andoindar bati lagundu ahal izatea. Ederra da herriak herriarentzat lan egitea eta bihotz handiko jendea dagoela ikustea.

Ez etsi, eutsi!
Kontakturako: covid.bolondresakandoain@gmail.com posta elektronikora emaila idatzi edo 662 561 185 telefono zenbakira deitu. Horrez gain, Facebook eta Instagram kontuak ditugu; Andoingo Covid Bolondresak.

"EDERRA DA HERRIAK HERRIARENTZAT LAN EGITEA ETA BIHOTZ HANDIKO JENDEA DAGOELA IKUSTEA"



IRITZIA

ANDONI URBISTONDO URNIETA

#gerazaitzetxean

Nazka ematen dugu. Madrilen, eta akaso laster Euskal Herrian, ni baino zaharragoak direnei arreta medikurik eskaini ez eta hiltzen utziko ditugulako. Tristea.

Nazka ematen dugu, egunero behar dugun ogia erosteko orduan konfinamendu arau zorrotzak saihesten saiatzen garelako. Milaka isun jarri ditu Poliziak, eta lagun asko atxilotu. Penagarria.

Nazka ematen dugu, jai egunak etorri, eta ezer pasako ez balitz bezala, gure bigarren etxera joan beste burutaziorik ez daukagulako.

Nazka ematen dugu Covid-19 Coronavirus gaitza gutxietsi eta katarro arrunt baten pare jarri genuelako. Ni neu denetan lehena. Gaur damutzea alferrikakoa da.

Nazka ematen dugu bi aste etxean isolatuta pasatzeko adorerik ez dugulako, erosotasun ia guztiak esku-eskura baditugu ere.

Nazka ematen dute jendartearengan eragina eduki zezaketen neurriak hartzeko ausardiarik erakutsi ez duten arduradun politikoei.

Nazka ematen dute osasuna bigarren mailan utzi eta kapitala arduragabe lehenetsi duten arduradun politikoei. Produktzioa mantentzeko eskaerak egin dituztelako egunero, ehunka langileko enpresen jarduna baimendu, langileen osasuna bermatzeko neurriak hartu gabe.

Nazka ematen dute OMS osasunaren erakundeak erabateko konfinamendua agindu, eta "momentuz ez gara hain egoera larrira iritsi", erantzun zuten arduradun politiko gorenak.

Nazka ematen dute osasun eta krisi sozial hau aldarrikapen eta irizpide militarrek inposatzeko erabaki dituzten arduradun politikoei. Ez dira soldaduak behar, medikuak behar dira.

Nazka ematen dute sintoma arinak dituzten herritar mordoari test-ak ez egiteko erabakia hartu duten arduradun politikoei. Kutsatuak zifra ofizialak diotena baino askoz gehiago dira. Errealitatea gordina eta egoskorra da, ezin da ezkutatu.

Nazka ematen dute azken hamarkadan arduragabe osasun publikoko giza baliabide eta bitarteko materialak murriztu dituzten arduradun politikoei. Maiz osasun pribatuaren mesedean.

Nazka ematen dute euren burua pribilegiatutzat hartu, eta osasun pribatuaz baliatuz test-ak egin dituzten aberatsek, behar handiagoko eduki zezaketanak alboratuz.

Nazka ematen dute lanera joateko etengabeko deia egiten duten enpresariei. Edota milaka milioi euro irabazi, eta behin-behineko lanaldi erregulazio txostena eskatzen dutenek, soldadak denon zergekin ordain daitezten.

Erredakzioa ESKUALDEA

Familia barruko komunikaziorako nahiz belaunaldi arteko transmisiorako bidea euskara izateko ahaleginean ari dira lanean.

Herritarrak ere batu dira zeregin honetara. Etxeko hizkuntza erabakigarria baita sarritan, gerora, norberaren bizitzan ahotan hartzen den hizkuntza hautatzerakoan ere. Asko dira, arbasoengandik jasotako ama-hizkuntza naturaltasunez txikitatik jaso eta erabileraren sokari segida ematen diotenak. Eta beste hainbat, euskaldundu ahala, gerora euskararen transmisio lanetan hasten direnak. Euskaldunduriko edo euskalduntze bidean diren guraso migranteak, esaterako.

Tartean, aparteko ahalegina egiten ari dira lerrootan bildu ditugun bi emakume; Fatima Fatimetou eta Vanessa Estupiñan. Biak ala biak munduko herrialde desberdinetatik gure artera haien bizi proiektua garatzera etorri ziren duela hamar kada bat. Fatima Saharatik, Vanessa Kolonbiatik. Biak ari dira euskara ikasten, haien sorterriko hizkuntza eta kultura alboratu gabe, euskararen transmisioa etxe barruan bermatzeko. Euskal Herrian jaio eta hezten ari diren seme-alaben eguneroko hizkuntza euskara izan dadin lanean.

Vanessa Estupiñan:

Kolonbiarra da Vanessa. Duela 10 urte heldu zen Lasarte-Oriara anaiarekin. Egun, lehen hitzak euskaraz ikasten ari den ia 3 urteko haurra du. Euskara jasotzen hasia da eskolan eta etxean. “Bat, bi erdaraz esan beharrean euskaraz adierazten du”. Bikote lagunak eta berak “dakigun oinarrizkoena irakasten diogu eta ulertzen du”.

Argi zuen Vanessak, hemen bizita haurrak euskaraz ikasiko zuela “eta nik ere bai”. Eskolan nahi zutenek euskara ikasten hasi edo indartzeko informazioa biltzen zuen eskuorri modukoa helarazi zieten gurasoei. “Lan ordutegia egokitzeko aukera izan eta euskaltegira joan ahal nuenez, matrikulatzea erabaki nuen”, azaldu digu Vanessak. Batez ere etxean duen haurragatik ari da ikasten. Etorkizunari begira da, haurra helduxeagoa izango den une horri begira. “Eskolan dena euskaraz



Kolonbiarra da Vanessa. Duela 10 urte heldu zen Lasarte-Oriara anaiarekin. Egun, lehen hitzak euskaraz ikasten ari den haurra du. Euskara jasotzen hasia da eskolan eta etxean. NOAUA

Euskara etorkizuneko belaunaldien helduleku

Buruntzaldeko udaletako euskara batzordeek, hau da, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Usurbil eta Urnietakoek euskara sustatzen dihardute aspaldidanik eremu anitzetan; besteak beste, etxe barruan

irakatsiko diote eta guk etxeko lanekin lagundu nahi diogu”. Ez du bere sorterrri inguruetatik

beste hainbat herrikideren egoera bera bizi nahi. Alegia, ez du etxeko lanetarako laguntza es-

katzera behartua sentitu nahi. “Euskal Herrira bizitzera etorritako gurasoen haur dezente

ezagutzen dut, etxeko lanetarako laguntza eskatzen dutenak”, azaldu digu Vanessak. Berak izan nahi du transmisio lan hori euskaraz egingo diona. “Nik nahi dudana da guk lagundu ahal izatea, inoren beharrik izan gabe. Aurrerago, laguntza behar du eta. Bi gurasoak kolonbiarrak gara eta euskaraz mintzatzeko gai ez bagara, pentsa haurrari nork lagunduko dion etxeko lanetan”.

“Lantokian soltura handiagoa nahi nuke”

Ez da euskararekin duen lehen hartueman. Heldu zenetik DBH4an matrikulatu eta lehen hitzak ikasten hasi zen. Bere garaian urtebetez aritu zen euskaltegian. “Agur hitzak, aditz batzuk oso zailak egiten zitzaizkidan”. Administrazio eta finantza ikasketak egin zituen. Lanpostu bat aurkitzeko ordea, euskara maila altu edo ertainean menderatzea eskatzen dute. “Euskara ulertzen nuen, baina ez nintzen erantzuteko gai. Beraz ezinezkoa zitzaidan, ikasi nuen horri lotutako lanpostu bat aurkitzea”.

Euskaltegira itzuli da, “euskaraz erantzutekoan segurtasuna izateko. Hanka sartu arren, euskaraz hitz egiten saiatu nahi nuke”. Etxean eta baita jendarean lan egiten duen supermerkatuan ere. “Jende gehiena euskaraz agurtzen dut. Gero euskaraz hitz egiten segitzen dute, baina erdaraz erantzuten diet, prezioak adibidez euskaraz adieraztera ez naizelako ausartzen, hanka sartu dezakedalako”. Lantokian “soltura handiagoa izan nahi nuke, etxera heldu eta haurrari euskaraz gauzak egoki adieraztea”.

Bere antzeko egoeran zalantzan direnentzako mezua; “saiatzera animatuko nituzke. Euskaltegira joan daitezela, are gehiago eskolak berak horretarako aukera ematen badizu. Lanean nahiz etxean euskara erabiltzeko ikasiko duzu”. Oinarrizkotzat jotzen du, “benetan hemen bizitzea erabaki eta seme-alabak hemen hazi nahi dituenarentzat”. Eta noski, guraso gisa seme-alabei ere hizkuntza bera transmititzeko. “Gustuko dut euskara ikastea eta hemen bizitzea, eta oinarrizkoa da lantokirako, familiarako”, Vanessaren esanetan.



Semeak ikastolan matrikulatu zituen. "Etxean haien artean euskaraz hitz egiten dute. Arabieraz baino hobeto moldatzen dira". NOAUA

“Sahararrak izan arren, oso euskaldunak dira semeak”

Fatimak 14 urte daramatza Usurbilen bizitzen. Ama izan zenean argi zuen, ikastolan, matrikulatu zituen semeak. “Hemen bizitzea erabaki nuenez, euskara ikastea nahi nuen”

Euskalduntze bide horretan, ez zuen bitan pentsatu; semeak ikastolan matrikulatu zituen. “Euskaldun euskaldunak dira. Etxean haien artean euskaraz hitz egiten dute. Arabieraz baino hobeto moldatzen dira. Sahararrak izan arren, oso euskaldunak sentitzen dira”, dio Fa-

timak. Hizkuntza transmisioari dagokionez, paper garrantzitsu eta berezia dute Fatimak eta senideek. Alde bietakoa den elkar ikaskuntza eta igorpena; semeek euskara ikasten laguntzen diote Fatimari. Fatimak sorterriko hizkuntza transmititzen die semeei arabiera gal ez

dezaten; transmisio bikoitza da halere, ikasten doan euskara ere ahotan hartu nahi baitu semeekin. “Ama hizkuntza ere ezagutu behar dute, inork ez baitu bere jatorria ahaztu nahi eta beste hizkuntza bat ikasteak ez dio tokia kentzen lehendik ikasitakoari”. Lerrootako elka-

“Hobeto euskara ondo ezagutzea”

Euskal Herriko berri bazuen Fatimak lehendik. “Sahararra naizenez, euskal historia aspalditik ezagutzen dut. Hona etorri aurretik”. Gustuko du euskara eta euskal kultura. Kanpamenduetan bizi zirela, oso gogoan du “euskaldunen komisioak etortzen ziren saharar herria laguntzera”. Horregatik dio, behin hona etorrita, “hobeto euskara ondo ezagutzea, askoz gehiago jakiteko eta gizartean integratzeko”.

“Bat gehiago izan nahi dut”

Herrigintzan nahiz aisialdi eremuan emakumeen pala taldean parte hartu izan du. “Denek hitz egiten zuten euskaraz. Ez nuen taldeko astuna izan nahi”. Argi dio, “bat gehiago izan nahi dut, noan lekura noala”. Lan mundurako ere behar da euskara, “askok euskaraz soilik hitz egiten dute eta haien eskubidea da”.

“Euskaraz hitz egiteak bizitza errazten dizu”

Halakoetan argi du, “pertsonekin zer hizkuntzetan komunikatu jakin behar da, nahiz egoki ez adierazi. Gutxienez interesa erakustea”. Sorterrian egoera latz asko bizitzea egokitu zaie eta Fatimak argi du, “bizitza egokitzen zaizkizun egoerekin nola bizi asmatu behar da”. Argi irizten dio, “bizi zaren herriko hizkuntzan hitz egiteak bizitza errazten dizu”.

“Jakintzak ez du lekurik betetzen”

Berak euskara ikastea, senideekin ere mintzatzea, eta euskararekin bezala, semeek “arabiera ondo kontserbatzea” nahi luke. Transmisio lan bikoitza beraz. Baina berak dioten moduan, jakintzak ez du lekurik betetzen.

rrizketatuak bazekien Usurbilen ikasita, euskara, gaztelera eta ingelera ikasiko zutela semeek, “arabiera irakasten ez banien, ez zuten ikasiko”. Orain, funtzio trukaketa egin dute. “Ni irakasten aritu naiz, haurrek arabieraz hitz egitea lortu nuen. Orain haiek laguntzen naute euskararekin”.

Pozik joaten da euskaltegira

Bere garaian, semeak txikiak zirela “nahi nuen haiekin euskara ikasi eta denok batera aurrera egitea baina lan kontuengatik ez nuen lortu. Orain ordea bai”. Euskara etxetik kanpo jaso dute semeek, baina bide hori indartzeko Usurbilgo Etumeta AEK euskaltegian hasi da ikasten Fatima. Pozik eta motibatua dabil. “Asko laguntzen naute. Lehen ikasturtean nago. Hemen bizitzen denbora asko darama-

danez eta interesa dudanez, hitz egitea kostatzen zait baina ulertu, asko ulertzen dut”, adierazi digu. Ikasitakoa ahotan hartzen ahalegintzen dela nabarmentzen du, gune publikoetan eta etxean.

“Ama, ondo egiten ari zara”

Etxeko lanak partekatzen dituzte ama semeek. “Ama, ondo egiten ari zara. Pixkanaka aurreratzen zoaz”, adierazten diote semeek Fatimari. Argi du bide luzea duela jorratzeke aurretik, “baina, garrantzitsuen borondatea da, gauza asko lor ditzakezu borondatea izanez gero”.

Eta erronka beteko duela argi du. “Inoiz ez da berandu. Saiatzen bazara, nahi duzuna lortu ahal duzu. Semeek euskara eta arabiera ondo hitz egiten dute. Nik denborarekin euskara ikasiko dut. Lortuko dut”.





Olivier Georg andoaindarrak bere burua soldadu hutsa ikusten du, birusaren aurka bizi duzun borrokaldian. GEORG

3D inprimagailuzaleen elkartasun sarea

COPVIDEUSKADI Koronabirusak eragindako krisialdiaren ondorioz, bolondres talde asko ari da sortzen, estatuak ase ezin dituen beharrei erantzuna emateko. Olivier Georg andoaindarra aurpegi-babeserako bisera egiten ari da etxeko 3D inprimagailuan

J.A.Ubeda, A.Gil ANDOAIN

Boluntarioki lanean ari zara. Zein motatako maskarillaz ari gara?

Ospitaletan galdetu zuten zein behar zituzten, eta “maker” edo egile komunitate ezberdinei jakinarazi diete. Euskadikoa CovidEuskadi taldea da. Maskarillak dira behar nagusia. Arnasgailuak ere garatzen ari dira, baina hori dezente zailagoa da. Gainera, osasun larrialdi egoera bada ere, enpresa batzuek ez diete uko egin nahi euren patentei. Egiten ditugun maskarillak ez dira kalean ikusten ditugunak bezalakoak; horiek ezin dira inprimatu. Bisera edo aurpegi-babesa da egiten duguna; xafla gardena darama eta atzealdetik lotzen da, goma baten laguntzaz. Bisera horren oinarria da guri eskatzen digutena. Gomak edo xaflak baditugu ere eman ditzakegu, baina aurpegi-babeseko oinarria da bereziki behar dena. Komunitate-diseinua da, ez dakit nork sortu zuen, baina sortzaileak, denen eskura jarri zuen webgune batean. Objeto ezberdinen modeloen bilgetia da; kasu ho-

netan Thingiverse gauzen unibertsoa jendeak erabil ditzen, edo bere beharrei egoki ditzen. Eskuzabaltasun hori ohikoa da “maker” munduan.

Zein material erabiltzen duzue 3Dn inprimatzeko?

FDM inprimatze motarako, PLA (azido polilaktikoa) erabiltzen da, plastiko biodegradagarria. Urtutako materiala erortzen uzten du inprimatze mota honek. Nahiko material merkea da PLA, 15 bat euro kiloko. Filamentuak bobinetan bilduta etortzen dira, eta kolore askotakoak izan daitezke; badaude gardenak edota fosforeszenteak ere. PLAz gain, beste material mota asko ere badako, biguinago edo gogorra goak, karbono fibrarekin sendotuak, %90ean metal hautsa duen plastikoa... Badira, bestalde,

"COVIDEUSKADI KOMUNITATE TALDEAN BISERA EDO BEGI-BABESAK EGITEN ARI GARA"

beste hainbat eta hainbat teknologia.

Betidanik gustatu izan zait bricolajea. Aitarengandik jaso dudun pasioa da. Duela hogeitaz urte baino gehiago iritsi nintzen Andoainera, eta hainbat urtez joan nintzen Udalak antolatutako egurtaila ikastaroetara. 3Dn inprimatzea antzekoa da, eta bada denboratxo bat nire arreta piztu zuela. Iaz, etengabeko formakuntzako programaren barruan, 3Dko inpresioiko 20 orduko ikastaroa antolatu zuen La Salle Berrozpek, Lanbideren bidez. Ez nuen bi aldiz pentsatu. Ederra izan zen. Tolosako Domotek enpresako Koldo Artolak eskaini zuen ikastaro hura. Gai askoren inguruko azalpenak eman zizkigun: teknologiak, materialak, aplikazioak, programak, gertatzen diren akatsak... Guzti hau praktika edo inpresio erronkekin bateratuta. Ikastaro aurreratuago bat jasotzeko interesik ba ote genuen galdetu zigunean, ez genuen zalantzarik egin, eta urte hasieran eskaini zuten. Askok eskertzen diot La Salleri ikastaro hura eta

orain gertatzen ari dena ikusita, are eta eskertuago. Ikastaroa eginda, etxerako inprimagailu txiki bat erostea erabaki nuen, Creality Ender3a. Merkea da, 150 euro inguru balio du, eta 22x22 zentimetro arterainoko piezak egiteko baliagarria da. Irudimena da gura bakarra.

Gaineratu beharra daukat, Koldo irakasleak interes berezia duela medikuntza gaitan: eskutarako protesiak, ortodontzia... Gurutzetako ospitalarekin elkarlanean ere ari da, biobateragarriak diren ehunak garatzeko. Hark esan zigun 3D inprimagailuek protesi funtzional eta merkeak egitea ahalbidetzen zuela, garatze bidean diren herrialdeetarako. Inoiz ez nuen pentsatu izango hemen bertan erabili beharko genukeenik.

Zenbat inprimatzen dituzu egunean?

Nire inprimagailuan bi bisera egin ditzaket aldi-berean, eta inprimatze bakoitzak 4 bat ordu behar ditu. Inprimatze bat amaitzen duenean, hurrengoa jartzen dut martxan. Jarraian, ura eta lejiarekin garbitu behar dira eta plastikozko poltsetan sartu. Guxtienez 10 dituzunean, eskakizun bat bete eta DYako langile bat etortzen da etxera, jasotzera. CovidEuskadi-ren webguneak oso ondo azalduta du hau guztia. Webguneaz gain, bada Telegram kanal bat ere eta parte-hartzea ikaragarria da. Momentu honetan, 1250 erabiltzaile daude, zer egin daitekeen galdetuz, edo beharrak azaltzen. Adibidez, zaharren egoitza askotan maskarillarik gabe ari dira lanean. Izugarria da. Eskuzabaltasun horrek, eta premia horiek, ez zaituzte epel uzten.

Auzoak nola bizi du egoera?


Auzoan giro ezberdina dago. Jendea gehiago ateratzen da balkoietara; gure pareko bizilaguna nor den ohartzen ari gara, eta haiekin hitz egiten hasi gara. Egunero, 20:00etan balkoira atera eta osasungintzan lanean ari direnei txalo egitea ere onuragarria da, elkartu egiten gaitu. Orokorrean, adeitsuago gabiltzala iruditzen zait. Egia da, baita ere, egunero ko estresa desagertu egin dela.

Zer moduz daramazue etxean?

Umeeak, ahal duten bezala daramate egoera. Gurasooi dagokigunez, telelana egitea ahalbidetzen diguten lanpostuak ditugu, eta etxea bulego bilakatu da. Programatzen ari naizen bitartean inprimaketak kontrolatzeko modua eskaintzen dit horrek. Gure en-



Landu behar duten eredu. GEORG



Georgen 3D inprimagailua. GEORG



Filamentuak bobinetan bilduta datoz.

presak, lankideekin komunikazioan egoteko kanalak jarri dizkigu eskura, eta horrela ari gara moldatzen. Baina ez da gauza bera, goizeko atsedeneko solasalditxoak falta zizkigu, edo eguerdiko “hara, nik ere lentejak ditut bazkaltzeko”... Niri dagokidenez, ama eta arrea Suitzian ditut eta harremanetan gaude. Baina oso arduratuta nago amagatik. Adin handiko pertsona askok egiten duen bezala, ez du ulertzen krisialdiaren larritasuna, eta atera egiten da, nahiz eta arrisku handiko pertsona izan. Errieta egin behar izan diogu. Egun ditugun teknologia berriei esker zortedunak gara. Frantzia eta AEBn ere badituzte sentitartekoak eta haiekin ere harremanetan nago. Zortea izan dugu, duela 10 bat urte bakarrik ez genituen gaurko komunikatzeko baliabideak. Oso ezberdina eta askoz ere zailagoa izango litzateke dena.